

Donostian, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1931-ko Uztailaren 2-an.

Batzar ontan euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Olabide, Eguskitza, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegarai, Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitzez asi da.

I.—Etxegarai jaunak esan digu : Eusko-lkaskuntzak euskera-azterketak egiten dituela, irakasle, ikasle ta azterketa eskatzen duten beste askorentzat. Epailak Apraiz (Anjel) Etxegarai bera ta Escalera Maidagan jaunak izan dira.

Euskaltzaindiak begi onez ikusten du. Orixe jakin nai zuen Etxegarai-ek.

II.—Uréngo batzañaldiak Dagonilaren 17-an Ondañoan egingo ditugu, Domingo Agiré zanari eskeñitako aomen-jaietan. Batzañaldi abek Urñilekoen orde z izan go dira.

III.—Azkue jaunak Eronkariko euskalkiz luze ta atsegin itz egin digu.

IV.—Bäher jaunak lan bat bidali digu; bere gaia : *De los compuestos partitivos. Cuáles son sus subfijos. De los afijos en los verbos causativos.*

V.—Azkue jaunak Eronkarekiko beste lan bat dakar : ipuñiak, abesti ta eresiak esan dizkigu.

VI.—Aita Añaioz-ek bialitako itzak, Aita Intzak irakufi dizkigu.

VII.—Altsasuan euskal-jai batzuek egin bear lira-kela, nor edo nork aipatu du; baiñan Etxegarai jaunak dasa: orain dabilen zorabioan ezin ezer egin litekela. Orixe deritza Euskaltzaindiak ere.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik, otoitzez amaitu da batzañaldia.